

DIBORTZIO EGOERAREN AURREAN ESKOLAREN ESKU HARTZEA: ARABAKO ESKOLA BATEN KASUA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Zallo Ramón, Itsaso.

ZUZENDARIA: Goñi Palacios, Eider

2019

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. JUSTIFIKAZIO PERTSONALA	4
3. MARKO TEORIKOA: GAIAREN GARRANTZIA ETA ARLOAREN EGOERA	5
3.1 Gaur egungo egoera	6
3.2 Familian egon diren aldaketak	8
3.3 Haurrak eta dibortzioa	10
3.3.1. Haurrak dibortzioaren aurrean	11
3.3.2. Dibortzioak sorturiko aldaketak	11
3.3.3. Haurren egitekoa dibortzioaren aurrean	13
3.4 Eskola eta Dibortzioa	14
3.4.1 Familia eta eskola	14
3.4.2 Eskolako profesionalen papera	15
3.4.3 Haurrak eta eskola	17
4. HELBURUAK	18
5. METODOA	19
5.1. Tresnak	19
5.2. Parte hartzaileak	20
5.3. Prozedura	21
6. EMAITZAK	22
6.1. Egoeraren analisisa	22
6.2. Proposamen pedagogikoak	26
7. ONDORIOAK	29
8. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	31
9. BIBLIOGRAFIA	33
10. ERANSKINAK	35
I. Eranskina: Irakasleei egindako elkarrizketa erdi-egituratuaren gidoia	35
II. Eranskina: Egindako elkarrizketen transkribapena	35

DIBORTZIO EGOERA BATEN AURREAN ESKOLAK ZE NOLAKO ESKU HARTZEA DUEN ADIERAZTEA ETA HORREN GAINEAN HAUSNARTZEA

Itsaso Zallo Ramón

UPV/EHU

Lan honetan eskolek gurasoen banaketaren aurrean duten esku hartzea aztertzen eta adierazten da; prozedura eta tresna kualitatiboak erabiliz, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastola batean aipatutako esku hartzea aztertu da. Lan honen bidez, gaur egungo gizartean gero eta ohikoagoa den dibortzio gaiari sakondu izan da, haurrek dituzten erreakzioak eta hezkuntza sisteman egon daitezkeen gabeziak adieraziz. Ikerketan, gai honek ohiko gaietan lekurik ez duela erakusten da eta horri irtenbide bat eman nahian, edozein ikastola/eskolatan erabilgarriak izan daitezkeen baliabideak proposatzen dira.

En este trabajo se analiza el tratamiento que ofrecen los centros educativos ante un caso de divorcio; en concreto, se analiza el tratamiento que hace del tema una ikastola de la Comunidad Autónoma Vasca, para lo cual se utilizan procedimientos y técnicas cualitativos. Se profundiza sobre el tema del divorcio que tan presente está en nuestra sociedad, indicando las reacciones que tienen los niños y niñas y la escasez de recursos que tiene el sistema educativo. En la investigación se concluye que este tema no se trabaja con la frecuencia que se debería y con el fin de dar una solución se proponen diversos recursos para llevar a cabo en diferentes centros educativos.

This final project analyzes and explains the treatment offered by schools in a divorce situation; the treatment given in an ikastola of the Basque Autonomous Community has been analyzed and qualitative procedures and techniques have been used for this purpose. The topic of divorce, that has a high presence in our society, is studied in depth, indicating the reactions that children have and the scarcity of resources that the educational system has. In the investigation it has been seen that this issue is not worked as often as it should be and in order to give a solution various resources are proposed to be carried out in different schools.

1. SARRERA

Gure gizartean, gero eta dibortzio egoera gehiago aurki ditzakegu eta ondorioz, ikasgeletan egoera hori jasaten duten haurrak gero eta gehiago dira. Ikasle hauen egoera kontuan hartu behar dugu, nahiz eta fenomeno hau gaur egun gure gizartean ohikotzat jotzen dugun. Haur batek gurasoen dibortzioaren aurrean dituen bizipenak kontuan hartzea oinarrizkoa da haurraren dibortzioak izan dezakeen eragina ondo identifikatzeko.

Ez dirudi gaur egun dauden dibortzio-tasak murriztuko direnik; hortaz, haur eta gazteekin lan egiten duten hezkuntza-profesionalek gai izan behar dute dibortzio egoeran murgilduta dauden seme-alabei haien bizi-egoera berrira behar bezala egokitzen laguntzeko.

Hori horrela delarik, ikaslea eroso eta babestua senti dadin, eskola garapen testuinguru erabakigarria denez, gurasoen banaketak haurraren daukan eragina eta ikastetxean dibortziolari ematen zaion trataera erabakigarriak izango dira.

Honen inguruko gradu amaierako lan bat egitea, beraz, egokia eta beharrezkoa da. Lanaren atalak zazpi dira. Hasteko, justifikazio pertsonala deituriko atalean, GrAL hau gauzatera eraman duten arrazoiak azaltzen dira. Bigarren atalean, esparru teoriko eta kontzeptuala deituriko horretan, egoeran testuinguratzeko baliagarria izango den informazioa ematen da. Hirugarrenean, ikerketa hau burutzearen helburuak adierazten dira. Jarraitzeko, lana aurrera eramateko erabili den metodologia aurkezten da. Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe batean dibortzio egoerari ematen zaion trataera aztertzen da eta lortu diren emaitzak azaltzen dira hurrengo atal batean. Emaitzekin batera ikastetxean ematen den trataeraren egoera ezagututa, etorkizunera begira proposamen pedagogiko batzuk aurkezten dira. Hurrengo atalean, ondorioak aipatzen dira. Zortzigarren eta azken atalean, lana hobetzeko proposamenak aipatzen dira, hau da, behin lana bukatutakoan, bidean topatu diren hutsuneak hobetze aldera proposatutako hobekuntzak.

2. JUSTIFIKAZIO PERTSONALA

Egindako aukerak badu zerikusi handia irakaslea izatearekin. Ikasgela batean irakasle izateak ardura asko dakar berekin. Ikasgelan topatuko ditugun haurrengandik ez ditugu bi berdin aurkituko. Haur guztiak ezberdinak izanik, batzuek arrazoi ezberdinengatik zailtasun handiagoak izango dituzte beste batzuek baino. Zailtasun horiek, adimen, hizkuntza, ohitura edo gizarteratzeko gaitasunagatik etorriko zaizkie eta hainbatetan etxean duten giroagatik, harremanagatik edo zoriontasun edo zoriontasun ezagatik. Irakasle on batek haur guztiak berdin tratatu behar ditu eta berdin tratatzeko, bakoitzaren berezitasunak ezagutu behar ditu. Berdin tratatzeak ez du esan nahi guztiekin berdin jokatzea, baizik eta aukera berdina izan ditzaten ezberdin tratatu behar badira, horrela jokatzea. Irakasleak ikasleen gidaria izan behar duela uste dut eta horretarako oinarritzkoa da haurra ondo ezagutzea barrutik (izaera, gaitasunak, adimena...), zein kanpotik (lagunartea, etxea, senidea, jatorria...).

Irakaslearen funtzioetako bat haurren garapenean eragitea izanik, dibortzio egoera batek haurren izan dezakeen eragina alde aurretik ezagutzea oinarritzkoa iruditzen zait, haurren dibortzioa gainditzen laguntzeko. Irakasleok gai izan behar dugu haurren errendimenduan, autoestimuan, ikasteko gaitasunean, gizarteratzeko gaitasunean, emozioetan eta jarreretan aldaketarik detektatzeko eta ondorioz zuzentzeko estrategiak erabiltzeko.

Irakasle on bat ez da ezagutzak besterik gabe haurrei transmititzen diena, ez da arbelean azalpenak idazten dituen, ezta ,besterik gabe, etxeko lanak bidaltzen dituen. Horretaz gain, irakasleok haurren inguratzen dituzten baldintzak kontuan hartu, haurren zaindu eta gurasoengandik hurbil egon behar dugu, eta hala badagokigu, etxeko egoera gatazkatsuei aurre egiten lagundu behar diegu.

Guraso dibortziatuen alaba izanik eta etorkizun hurbilean haur hezkuntzako gela batean irakasle arituko naizela kontuan harturik, dibortzioak maila teorikoan dakartzan ondorioak ezagutu nahi izan ditut eta praktikan eskola eta familiaren arteko harremana errazteko baliagarria izan daitekeen protokolo baten garrantzia azpimarratu nahi izan da, non komunikazioa, esku hartzea bera eta irakaslearen formakuntza oinarritzkoak diren.

3. MARKO TEORIKOA: GAIAREN GARRANTZIA ETA ARLOAREN EGOERA

Azken hamarkadetan banaketa edota dibortzioaren kopurua gorantz doa nabarmen. Banaketak, salbuespen izatetik, familia askok aurre egin behar duten egoera izatera pasatu dira. Gertaera horiek estres eta sufrimendu fase bat dira familiako kide guztientzat, baina bereziki seme-alabak mintzen dira eta gurasoek hartu duten erabakiaren ondorioak murrizten saiatu behar dira. Gogoan eduki behar dugu haurrek gurasoak elkarrekin bizitzea nahi dutela. Hala ere, batzuetan banaketa edo dibortzioa beharrezkoa da: gurasoen harremana oso gatazkatsua denean, seme-alabengan ondorio larriak sortzen ditutenean edota egoera hobetzeko bide guztiak agortu direnean (Manzano eta Martin, 2007).

Haurra jaiotzen denean pertsona bat da; norbanako hutsa. Norbanako horrek gizartean bere tokia bilatu behar du. Hasiera batean familiaren beharra du gertuko gizartearekin harremanetan jartzeko. Haurrentzako familia agente garrantzitsua da lehen sozializazioa garatzen laguntzen duelako. Eskolak honetan ere bere paper garrantzitsua du, honek bigarren sozializazioa garatzen laguntzen duelako. Haurrak bi erakunde hauei esker sozializatzen ikasiko du. Gaur egun haurrak gero eta lehenago sozializatzen direnez, haurrak batzuetan bigarren sozializazioa garatzera ekingo dio lehenengo sozializazioa oraindik garatuta ez duenean. Eskolak egoera honen aurrean sozializazioaren agente garrantzitsu bihurtzen da eta familiaren zeregin asko eskolako hezitzaileari dagozkio.


Eskolak haurraren garapenean eta sozializazioan duen garrantzia eta papera ikusita, haur horien familien izaera eta hala dagokionean, horien aniztasuna kontuan hartzea garrantzitsua da. Eskolak haurrari babesa ematea bada sozializazioaren zereginetako bat, haurra espazio horretan dagoen denboran eroso senti dadin eta etxetik dakartzan sentimenduak eta egoera zailak biguntzeko, eskolak baldintzak jarri behar dizkio. Horretarako garrantzitsua da eskolak banatze egoera baten aurrean zer nolako esku hartzea duen analizatzea eta horren inguruan hausnartzea umeari egokien etorriko zaiona jakiteko.

Gure etorkizun hurbilean eskolan topa dezakegun egoera bat izanda, nola kudeatu beharko dugun jakitea garrantzitsua da. Gaur egun gizartean dagoen familia aniztasunaren inguruan zenbat eta gehiago jakitea ondo etorriko zaigu haurraren sozializazioa era egokian bideratzeko. Izan ere, haurrek zer nolako erreakzio dituzten jakitea lagungarria izango da eta.

3.1 Gaur egungo egoera

Dibortzioak azken hamar urteetan gorakada nabarmena izan duela esan daiteke: espainiar estatuan 2004. urtean 50.974 familia dibortziatu ziren eta 2014. urtean aldiz, 100.746 familia. Hamar urtetan familia dibortziatuen kopurua bikoiztu omen da.


1. Irudia. Familia dibortziatuen kopurua



Iturria: Familia politika institutua (2014).

Apurtzen diren familien kopurua urteak joan ahala gora doa eta urtean 105.000 familia desagitera heldu da. Hauetako batzuk banatzen dira eta beste batzuek dibortzioa aukeratzen dute. Azken finean, biek dute eragina familiaren egunerokotasunean.

2. Irudia. Familia hausturen kopurua




Iturria: Familia politika institutua (2014).

Dibortzioak eta banaketak gure gizartean duten eragina zein den ikusita, aipatzekoa da urteetan zehar egon diren legeei erreparatzen badiegu, 1981eko dibortzio legeak ezkontzako hausturen legeztapenak baimendu zituela. Horien artean nukleo bikoitzeko familiak, hau da, txandaka bi gurasoekin bizi diren umeek osatutako familiak, baita konbinatu edo berriz eratutako familiak ere, bigarren elkartze baten fruitua direnak.

Lege hau errealitate sozialari hurbiltzeko saiakera garrantzitsu eta adierazgarria izan zela esan daiteke eta gaur egun, denborak emandako perspektiban oinarriturik, ikaragarritzko eragina izan du gizarte osoan. Urte bereko maitzean egindako erreformak gizarteko familia menderatzaileko ereduaren transformaziorako oso garrantzitsuak izan baziren ere, urte horretako uztailaren erreforman dibortzioa sartu zenekoa izan zen, aldaketaren eta erakundeen modernizazioaren seinale bezala efektu sinboliko handiena izan zuena erakundeen eta familiarteko harremanetako modernizazioan eta aldaketan (Alberdi, 1999).

Legea onartu zen urtetik, Espainian nabarmenki igo da bereizketa tasa. 2006. urteko datuek adierazten duten bezala, 145.000 familia arteko haustura baino gehiago izan ziren (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, 2006).

3. Irudia. Familia hausturak, dibortzio eta bereizketa kopuruak



Iturria: Familia politika institutua

3.2 Familian egon diren aldaketak

Gure gizarteak azken urteotan eremu askotan aldaketa ugari jasan ditu, baita familia eremuan ere. Duela gutxi arte erreza zen gure gizarteko familiak definitzea, gehiengoak eredu berdina jarraitzen zuelako, gizonak, emakumeak eta bien seme-alaba biologikoek osatzen zutena. Azken urteotan, berriz, familia eredu honek eraldaketa handiak izan ditu, familiaren partaideei, familia barruko rolei, familiako harremanei dagokienez, baita familiak sortzeko eta familia unitateari eusteko moduari dagokionez ere (López, Díez, Morgado, eta González, 2008).

Scanzonik (2004) dioen bezala, espezie-aniztasuna ekosistemaren osasunaren adierazle bat den bezala, familiaren aniztasuna gizarte baten osasun adierazle bezala begietsi beharko litzateke, aniztasunak familiaren kideek aukeratzeko eta zorientzuen egiten dien familia ereduan bizitzeko eta garatzeko duten askatasunaren maila erakusten duen heinean.

Familian gertatzen diren aldaketak gizartean baitan gertatzen diren aldaketa global batzuen barruan sartzen dira. Aldaketa globalek modu batean edo bestean familiako zein banakako psikologian eragina izaten dute, balio tradizional batzuk zalantzan jartzen dituztelarik. Familia mundu sozial baten barnean dago, nahiz eta gizartearen beste arlo batzuekin alderatuta, egonkorra den, familia ere dinamikoa da eta neurri batean familian gertatzen diren aldaketek gizarte maila orokorrean gertatzen diren hutsuneak islatzen eta berraztertzen dituzte (Fabelo, 2015).

Familia ereduan izan den aldaketa ulertze aldera, modernitate likidoaren terminoa gogora ekartzea komenigarria da. Zygmunt Baumanek “Modernidad líquida” (1999) lanean likidoen ezaugarriak aipatzen ditu eta horiek gizartera ekarrita, behin eta berriro ematen diren aldaketak hobeto ulertuko ditugu. Likidoek ez dute bere forma mantentzen, ez dira espazioan finkatzen eta ez dira denborarekin lotzen. Likidoak aldaketarako prestuago egoten dira solidoak baino. Solidoek bere forma mantentzen dute eta denboran irauten dute. Gizartea oraintsu arte sedentarismoarekin lotuta egon da; egonezina eta nomadismoa, aldaketarako joerak gaizki ikusita egon dira. Gaur egun, berriz, ez dugu irauten duen ezer onartzen. Aipatutako ideia hau familiaren eremura ekarri daiteke erraz: familiaren ardatzaren gunea gurasoek osatzen dutena dela ulertuz, familia “urtzen” hasi da dibortzioaren bidez, solidotik likidora pasatzen ari da. Beste hitz batzuetan, lehen bizi osorako irauten zuenak, gaur egun, guztiz aldakorra da.

Gure gizartean aurkitzen ditugun familia motak aipatu aurretik, garrantzitsua da familiaren definizio bat ematea eta familia zer den ondo jakitea. Familia da norbanakoak eta, giza bizitzaren hasieratik, gizartea konektatzen dituen erakundea. Bi hauentzako funtsezkoa den funtzioa betetzen du: gizarteari oinarrizko laguntza ematen dio norbanakoak gizarteratuz eta norbanako hauetako bakoitzari gizarterantz doan bidea irekitzen dio oinarrizko gizarteratzeko prozesuarekin. Familia pertsonen identitate indibidual eta soziala eraikitzen den tokia da. Hortik dator antolaketa sozialerako eta norbanakoen psikologiarako bere garrantzia (Alberdi,1999).

Gaur egun gure gizartean familia mota anitz aurki ditzakegu, autoreen artean familia moten sailkapen anitz egin dira, besteak beste, Campo eta Rodríguez-Briosok (2002) eta Aguadok (2010) egindakoak. Nahiz eta sailkapenak oso antzekoak izan, lan honetan Aguadok egindako sailkapena aurkezten da familia mota gehien aipatzen duena delako, guztira hamahiru (Aguado, 2010):


- a) familia hedatu edo konplexuak
- b) familia nuklear funtzionala
- c) guraso bakarreko familiak
- d) izatezko bikoteak
- e) seme-alabarik gabeko guneak
- f) pertsona bakarreko guneak
- g) familia berreraikiak
- h) adopzio-familiak
- i) harrera-familiak
- j) familia homoparentalak, sexu bereko pertsonen osatua
- k) ugalketa lagunduaren bidez jaiotako umeen familiak
- l) subrogazioaren bidez sortutako familiak
- m) etorkinen familia aniztasuna

Familia hoberen definitzen duen hitza aniztasuna da, familia bakoitzak eredu eta egoera ezberdina du eta. Azken hamarkadetan espainiar estatuan gertatutako aldaketa sozialek eragina izan dute gaur egungo familiaren ezaugarrietan eta bilakaeran, eta hauek familia ereduen aniztasunean ere argi eta garbi islatzen dira.

3.3 Haurrak eta dibortzioa

Hurrek dibortzioarekin duten erlazioa ulertzeko garrantzitsua da Espainiar Estatuan dibortzioaren inguruan argitaratu diren datuak zeintzuk diren ezagutzea. Horretarako, Familia Politika Institutuak 2014. urtean argitaratu zituen portzentajeak kontuan hartuko dira: 92.735 hurrek dibortzio egoera bat jasaten dute haien bizitzan; bikoteen %48a, hau da, 27.546 bikote, haur bakarrekoak dira; %44a, hau da, 25.732 bikote, bi haur dituzten bikoteak dira eta %8a, hiru haur edo gehiago dituzten bikoteak dira. Esan beharra dago, haur bateko eta bi haur dituzten familien artean %92a osatzen dutela. Datuek dioten bezala, 2010etik 2014ra 458.371 hurrek dibortzio egoera bat bizi izan dute haien familian.

4. Irudia. Dibortzio kopurua urtero



Iturria: Familia politika institutua

3.3.1. Haurrak dibortzioaren aurrean

Dibortzio egoera jasaten duten haurrek dibortzioa nola ikusten duten aztertzen badugu, aipatzekoa da, txikienek familia osatzen duten kideen kopuruan oinarritzen direla familia definitzerako orduan eta ez dituztela kontuan hartzen familia osatzen duten kideek dituzten harremanak (Perderson eta Gilby, 1986; Piaget, 1967; Triana eta Simón, 1994). Adin hauetan banaketa mehatxu egoera bezala ikusten dute eta galera bezala hartzen dute. Honen aurrean, egoera ekiditeko edo atzera egiteko jarrera erakusten dute (Hetherington, 1989).

Morgadok (2003) “*El divorcio desde una mirada de los niños. Revisión teórica*” artikuluan haurrek dibortzioaren inguruan duten ikusmoldea azaltzen du; honako hauek dira hiru-sei urte bitarteko haurrek duten ikusmoldearen ezaugarriak:

- Banaketaren aurrean aurreko aroan baino antsietate handiagoa.
- Uztearen beldurra.
- Nor bere buruari errua botatzeko sentimendua.
- Adiskidetzeko itzaropen handia.
- Familia kontzeptu oso estereotipatua (elkarrekin bizi diren kideen zerrendatzea).
- Banaketaren bizipena = galera oso handia.
- Familiatik kanpo baliabideak bilatzeko oso estrategia kognitibo gutxi dituzten haurrak.

3.3.2. Dibortzioak sorturiko aldaketak

Banantzea eta dibortzioa ez dira gertakari puntualak, haurrengan eragina duten hainbat familia-aldaketa dakarten prozesuak baizik. Haurrek gehien jasaten dituzten aldaketak honako hauek dira (Martínez-Pampliega, Iriarte, eta Sanz, 2014):

- Gurasoetako baten galera edo harreman txikiagoa.
- Diru-sarrera ekonomikoen eta bizi-mailaren murrizketa.
- Bizilekuaren, ikastetxearen, auzotarren, lagunaren eta abarren aldaketa.
- Familia berri batera (eta kide berrietara) egokitu beharra.

Aldaketa horiek direla eta, dibortzioa oso esperientzia zaila izan daiteke seme-alabentzat. Bere ongizateari dagokionez, antsietate handia sorrarazten die, eta mezu bat bidaliz, tentsioaren edo ziurgabetasunaren aurrean protesta eginez eta abar erreakzionatzen dute. Egoera hau jasaten dutenean familiarik kanpo babes faktore bat topatzea oso zaila egiten zaie, lagunengan edo familiariko kideen artean babesa bilatzeko estrategia kognitiborik ez dutelako. Errekurtso babesgarri hori topatzea zaila egiten zaienez, etxe barruan gertatzen denaren menpekotasun handiagoa dute (Hetherington,1989). Orokorrean, esperientzia hau antsietatez bizitzen dute eta bakarrik geratzeko aukeraren aurrean beldurra eta haiengan errudun sentimendua topatzea ohikoa da.

Erruduntasun eta ez onartze sentimendu hauek gurasoetako batekin bakarrik bizitzeko aukeraren aurrean edo kustodia ez duen gurasoetako batekin harreman txikiagoa izateko aukeraren aurrean larritasuna sentitzen dute.

Aurreko atalean adierazi den moduan haurrek hainbat modutan ikusten dute haien gurasoen banaketa eta horregatik aipatzekoa da hiru eta bost urte bitarteko haurrek ze nolako erreakzio dituzten gurasoak banatzen direnean.

Maiz, hiru eta bost urte bitarteko haurrek zailtasunak izaten dituzte emozioak eta pentsamenduak adierazteko. Gurasoen banaketaren aurrean adin tarte honetan erantzun psikosomatikoak izaten dituzte (eskolara joatean edo elkarbizitzen ez den gurasoarekin joatean, esate baterako) oka egin, sabeleko zein buruko mina, sukarra, hezurretako mina, etab. Erantzun hauekin hitzez adierazi ezin dutena haien gorputzaren bidez adierazten dute.

Haurrek izan ohi dituzten erantzun psikosomatikoez gain, badira adin tarte honetako haurrek izan ohi dituzten ezaugarriak (Wallerstein 2006):

- Beldurra, antsietatea eta nahastea
- Agresibitatearen hazkuntza, baztertze sentimenduetatik duten haserrea adierazteko agresioa erabiltzen dute.
- Etorkizuna moldatzeko esperantza, gurasoak berriz elkartuko direneko itxaropena izaten dute.
- Erru sentimenduak, haurrak bere burua gurasoen banaketaren arrazoia izan dela uste du.
- Atzera pausua, haurrek antsietatea eta ziurtasun eza jada barneratuta zituzten jokabideak eginez erakusten dute.

- Fantasia eta errealtatearen arteko mugak zehazteko zailtasunak izaten dituzte.
- Etxetik ateratzeari uko egiten diote, hurbileko jendearengandik ez direlako aldendu nahi.

Banaketaren aurrean hurrek bere burua murgilduta ikusten dute gurasoen arteko iskanbiletan, arazo ekonomikoetan, etxebizitza zein ikastetxe aldaketan eta harreman gutxi izatearen ondorioz, custodia ez duen gurasoetako batekiko harremana ahultzen joan daiteke. Bestetik, galera handia bizi izaten dute gurasoen banaketan, izan ere, familiak, haien bizitzaren ardatza denak, oso aldaketa gogorra pairatu du eta ondorioz, horietako askok galeratik sufritzeaz gain, beste euskarri bat bilatu behar izaten dute familiak ematen zien estabilitatea berriro eskuratzeko. Eta hirugarrenik, banaketa ajuste psikologikorako arrisku faktorea da. Haurrentzat izateaz gain, bada haren gurasoentzat zein familia gertuarentzat. Banaketa mingarria da, nahiz eta gurasoek saiatu haien seme alabak sufrimendutik babesten, hurrek beti sufritzen dute (Emery, 2006).

Garapen ebolutiboari dagokionez, haur eskolako umeez arrazoiak eta ondorioak ebaluatzeko, estresagarriak diren egoerei aurre egiteko eta familiatik kanpoko baliabideak erabiltzeko gaitasun txikiagoa dute. Gainera, ohikoagoa da bere buruari errua botatzea eta uzteko antsietatea sentitzea (Zill, Morrison eta Coiro, 1993).

3.3.3. *Haurren egitekoa dibortzioaren aurrean*

Dibortzioak seme-alabengan duen eragina 30 urtez aztertu duen Judith Wallersteini jarraiki (Wallerstein, 1983; Wallerstein, Lewis eta Rosenthal, 2013), seme-alabek bete beharreko 6 zeregin psikologiko garrantzitsu daudela esan dezakegu:

- Dibortzioaren errealtatea ezagutzea: hasieran, hurrek berehalako aldaketak hautemango dituzte, eta modu jakin batean mugituko dira (fantasiaren eta errealtatearen artean dauden desberdintasuna aztertuz). Geroago berriz, gurasoen ekintzak balioetsiko eta bere bizitzarako ondorio baliagarriak aterako dituzte.
- Galerari aurre egitea: galerarik sakonenak bi dira: bata, familia oso eta batuaren galera da, horrek dakarren babes erreal eta sinbolikoarekin; bigarrena, berriz, haurren eguneroko bizitzaren parte izateari uzten dion gurasoetako baten galera da. Familiaren antolamendua lortzen ez bada, seme-alabek abandonu gisa senti dezakete eta

arbuioaren, umilazioaren, maitasunik ezaren eta ezintasunaren sentsazioa izan dezakete.

- Barnerakoitasun estrategikoa: gurasoek daukaten kezka onartzeko gauza izatea, neurri handiegian inplikatu gabe. Seme-alabek gurasoen egoera ulertu behar dute emozionalki, baina horrek ez du eraginik izan behar norberaren garapenean, hau da, seme-alaben interes, plazer, arazo eta lagunekiko harremanetan... Haur izaten jarraitu behar dute.
- Haserreari aurre egitea eta errua lantzea: askotan, haurrek uste dute aita, ama edo biak direla banatzearen errudun. Dibortzioa heriotza bezain saihestezina ez dela iruditzen zaie eta bere premien aurrean agertutako axolagabekeria-egintza bat dela uste dute. Horregatik, haserre sentitzen dira. Babestu behar dituzten pertsonak eta min ematen dieten pertsonak berak dira. Gurasoei barkatzen dietenean, beren buruari barkatzen diote haserretu izanagatik, errudun sentitu izanagatik eta gurasoek elkarrekin jarraitzea lortu ez izanagatik.
- Dibortzioaren izaera iraunkorra onartzea: hasieran, seme-alaba askok ez dute dibortzioa onartu nahi izaten eta batzuek berdin jarraitzen dute bost edo hamar urte ondoren. Gurasoak adiskidetuko diren ametsa oso ohikoa izaten da, baita guraso bakoitzak familia berria osatuko dutenena ere.
- Harremanen inguruko itxaropen errealistak garatzea: arrakasta lortzeko zein porrota jasateko aukerak daudela, maitatu dezaketela eta maitatuak izan daitezkeela, dibortzioaren arriskua hartzeak merezi duela, baina konpromisora, ezkontzara eta leialtasunera irekita egotea. Ez da erraza, batez ere familian bertan adibide kontraesankorrak izan dituztenean.

3.4 Eskola eta Dibortzioa

3.4.1 Familia eta eskola

Familia hezkuntza eremu garrantzitsuena izanik, eskolaren eta familiaren arteko elkar ezagutza, lankidetzeta eta konplizitateak ezinbestekoak dira. Oinarria bi erakundeen aldakortasunarekin lotuta dago, gaur egungo familia eta eskolaren ezaugarriak, beharrak eta elkar lanaren estrategiak etengabe berritzen ari dira eta.

Familiak eta eskolak haurren hezkuntza-erantzukizunak partekatzen dituzte eta horregatik beharrezkoa da gurasoek eskolan parte hartzea. Gurasoak eta irakasleak elkarrengandik zenbat eta gertuago egon, orduan eta errazagoa izango da norabide berean aritzea. Familia eta eskolaren ardura haurrak badira, elkarrekin aritu beharko dira irizpideak batu eta osatzeko. Lankidetzak hau ez da askotan ematen eta dibortziatutako gurasoen artean harremana ona ez den kasuetan komunikazioa zailtzen da.

Dibortzioa egoera bat bizi duten haurrei dagokienez, segurtasunari, egonkortasunari, jarraitutasunari eta konfiantzari lotutako erreferentzia bihur daiteke eskola. Izan ere, familia ezegonkortze eta berregituratze prozesu batean murgilduta dago, eta prozesu horrek estresa eragiten du inplikaturako pertsonengan. Beraz, irakasleek eta eskolako gainerako pertsona hurbilek funtsezko zeregina beteko dute haurren egonkortasunari eusteko zereginen, bereziki Haur Hezkuntzan. Haurrak jasaten dituen gabeziak konpentsatzen lagundu ditzake eskolak, eta aldaketei aurre egiteko eta garapen eta ikaskuntza egokiarekin jarraitzeko babes eta baliabide nahikoak eskaini diezazkioke haurrari (Martínez-Pampliega, Iriarte eta Sanz, 2014).

Gurasoen dibortzioa jasan duten ikasleen bi herenek aldaketak izaten dituzte eskola eremuan. Zenbaitetan, gurasoak ez dira konturatzen haurrek dibortzioaren ondoren izaten dituzten jokabide-aldaketa horietaz, baina hezkuntza arloko profesionalak suma ditzakete (Martínez-Pampliega et al., 2014).

3.4.2 Eskolako profesionalen papera

Hezkuntza arloko profesionala oso egoera onean dago dibortzio bat bizi duten haurrei laguntzeko, bere zuzeneko harremanaren bidez bere adinerako portaera eta garapen egokia duten haurrak eta ez dutenak ikusi, konparatu eta bereizi egin baititzake. Garrantzitsua da hezkuntza arloko profesionalak dibortzioaren aurrean agertzen diren portaera batzuk interpretatzen jakitea. Edonola ere, kontu handiz jokatu behar dugu; izan ere, hezkuntza arloko profesionalak dibortzio egoera bat bizi duten haurren inguruan dituzten igurikapenei buruz egindako azterlan batzuek agerian utzi dutenez, profesionalak oinarririk gabeko suposizio negatiboak egiten dituzte maiz haur horien inguruan. Hezkuntza arloko profesionalak ikasleengan izaten diren aldaketa horien kontzientzia hartzen ikas dezakete eta, era horretan, laguntza eskaini diezazkete haurrei. Gainera, haur bat familian dibortzio egoera bat bizitzen ari dela alde aurretik jakinez gero, hurbil-hurbiletik ikusi ahal izango ditu haurrengan agertzen diren aldaketak (Martínez-Pampliega et al., 2014).

Irakasle bat ikasle talde berri batekin lanean hasten denean, hainbat arlotan haien ezaugarri nagusiak ezagutzeko beharra izaten du, hots: arlo emozional-afektiboan, intelektualean, harremanak izateko eran, arlo akademikoan, eta abarretan. Baina hezkuntzaren eremuan beharrezkoa dugu testuinguru soziala ezagutzea, eta testuinguru horretan umearen eremu familiarra elementu garrantzitsuena da (Aguado, 2010).

Eskolari askotan zaila egiten zaio familien erronka berriei aurre egitea, aniztasunaren tratamendua ez baita erraza. Aniztasun hau errealtate bat den arren, denbora luzean tratamendu egoki bat eman beharrean, ezkutatzeko joera egon da. Horrela, eskolan familiaren gaia lantzean familia = gune nuklearra lotura erabili izan da, eta beste zenbait eredu agertu direnean arazo bezala planteatu ohi dira.

Eskolan familiaren gaia lantzen den gehienetan, familia nuklearraren prototipo nagusitik egiten da. Hau da, aitak, amak eta seme-alabek osatutako familia. Familia guraso-bakarren (berreraikitakoak, banaketa prozesua zeharkatzen ari direnak, berregokitze familiarrak gaintitzen ari direnak, eta abar...) haurren kopurua gero eta handiagoa denez, haien bilakaera psikologikorako garrantzitsua da familia aniztasun hori ohiko errealtatea bezala ikustea, aldeztatik aurretik familia tipo bat besteak baino egokiagoa jo gabe.

Irakaslearen gaitasunak beharrezkoak dira dibortzio egoerara egokitzeko balizko zailtasunekin lotutako jarrerak detektatzeko eta aldi berean era egokian gurasoekin harremanetan egoteko. Haurraren garapena egokiagoa da haurraren mikrosistema ezberdinen arteko harreman ugari, positibo eta anitzak ezartzen direnean (Musitu, 2004). Etxea-eskola mikrosistemen arteko lankidetzak eta guraso-taldearen ahalduntzea haurrari dibortzio egoera gaintitzen lagunduko dioten benetako estrategiak dira.

Familia eredu aniztasuna eta aldaketen abiadura kontuan harturik, eskolaren erantzuteko premia begi bistan dago. Ezagutza eta eztabaida, onarpena eta errespetua lortzeko aurrerapausoak dira. Eskola inklusiboak ingurumen aldagai ugari hartu behar ditu kontuan, antolaketan eta metodologian aldaketak egin baino lehen. Beraz, ez dago eskola inklusiborik familia aniztasunik gabe. Eta gaia garatzeko Eskolako Hezkuntza Proiektuaren partaide guztiek onartuak eta aktiboak sentitu behar dute (Aguado, 2010).

Dibortzio garaian gurasoen eta irakasleen arteko komunikazioa ez da beti erraza. Guraso askok ez dute horren berri eskolan ematen edota eskolatik hurrentzen dira. Berregituratutako familiekin kontaktua txikiagoa izaten da ikutu gabeko familiekin baino eta arazo gehien izaten duen guraso taldea dibortziatu eta bikoterik ez duen guraso taldea da.

Hauek bileretara joateko zailtasunak adierazten dituzte. Hala ere, badira gurasoak arazoak dituztenean eskolara jotzen dutenak eta krisia konpartitzeko toki bezala eskola ikusten dutenak. Gauzak horrela, hauek irakasleengan gehiegizko erantzukizuna uzten dute eta batzuetan honek larri eta nahigabetu dauden gurasoei erantzuteko gaitasuna gaindi dezake (Dowling eta Gill Dorell, 2008).

Irakasleek ere inoiz zalantza izaten dute ez baitaki zein rol hartu dibortzio prozesuan murgilduta dauden gurasoen aurrean. Dibortzio egoera bizi duten gurasoekin izaten dituzten bileretan sortzen den intentsitate emozionalari aurre egiteko irakasle guztiek ez dute euren burua prest ikusten eta beste hainbestek uste dute horrelako egoeretan parte hartzea ez dela euren egitekoa (Dowling eta Gill Dorrell, 2008).

3.4.3 Haurrak eta eskola

Eskola ere garapen testuingurua izanik, haur bakoitzaren premiak aintzat hartu behar dira, batez ere, egoera zailtan aurkitzen diren haurren kasuetan. Horrela, haurra eskolara joaten hasten denetik, irakasleak eta gurasoak elkarlanean aritu behar izango dira umea ingurune seguru batean aurki dadin. Ondorioz, bere garapenaren mesederako, portaera- arau egokiak aktibatzen saiatuko dira; izatez, dibortzio egoeran murgilduta dagoen haurrarentzat, eskola bere segurtasun, egonkortasun eta konfiantza erreferentea bilaka daiteke (Poyatos García, 2003).

Haurrak babesa bilatuko du bereziki gurasoek haurren beharrei arreta jarri ezin dietenean. Hainbatetan dibortzioaren ondorio negatiboak heltzen dira gurasoak emozionalki hain ukituak daudenean eta ondorioz haurrengan atentzioa jartzeari uzten diotenean (Bernal, 1998). Hau gertatzen denean, ohikoa izaten da haurrengan desorekaren adierazleak eskolan detektatzea (Castell, 2014): gurasoak bananduta duten haurren bi herenek, eskola eremuan aldaketak aditzera ematen dituzte, erdiak baino gehiagok antsietate maila altua adierazten du eta bosten batek tristura eta lagunetik harremanetan haustura adierazten du.

Clergetek (2006) baieztatzen du haur batzuek etxeko gatazkak eskolan erreproduzitu ahal dituztela eta haur bortitzat hartuak izan, horren ondorioz, beste haurrek baztertuak izan eta "txibo espiatorio" bihurtu.

4. HELBURUAK

Lan honen helburu orokorra, eskolak haur baten gurasoak banatzen direnean zer nolako erantzuna ematen duen aztertzea da. Zehazkiago, Arabako ikastola baten errealitatea aztertuko da, helburu espezifikoari erreparatuz:

- Dibortzioaren inguruko prestakuntza zein den ezagutzea.
- Dibortzio egoeren aurrean esku hartzea egiteko tresnak erabiltzen dituzten aztertzea.
- Ikasgeletan gaiaren lanketa egiten den identifikatzea.
- Proposamen pedagogikoak irakaslearen eskura jartzea.

5. METODOA

Ikerketa lana eta helburu horiek aurrera eramateko, ikerketa kualitatiboa edo interpretatiboa egin da:

“Lo cualitativo alude a la esencia de las personas y las cosas y nos habla de lo que caracteriza a las personas, de las diferencias que hacen que sean como son, de lo que les distingue a unas de otras, en definitiva, de su personalidad” (Baéz eta Pérez de Tudela, 2007, 36. or.).

Horrela, ikerketa kualitatiboa pentsamendu fenomenologikoaren ideiei atxikitzen da. Bere helburu nagusia zergatiak ezagutzea eta gauzak zergatik gertatzen diren ezagutzea da. Horretarako, errealitate hori bizi duten pertsonak behatu eta haiekin hitz egiten da aurrez aurreko elkarrizketaren bidez, galdera irekiak formulatuz. Mota honetako galderek nortasunaren eta banako bakoitzaren esperientzien mendean egongo diren mota askotako erantzunak ekartzen dituzte.

5.1. Tresnak

Aurretik aipatu den moduan ikerketa hau egiteko metodologia kualitatiboa erabili da eta ikerketa aurrera eramateko erabilitako tresna elkarrizketa (*1. eranskina*) izan da. Erabili den elkarrizketa mota erdi egituratua izan da.

Elkarrizketa ikerketa kualitatiboan datuak jasotzeko erabilgarritasun handiko teknika da. Canalesek (2006) honela definitzen du: “la comunicación interpersonal establecida entre el investigador y el sujeto de estudio, a fin de obtener respuestas verbales a las interrogantes planteadas sobre el problema propuesto”. Elkarrizketa galdetegia baino eraginkorragoa da, informazio sakon eta osoa lortzen delako. Gainera elkarrizketak prozesuan zehar zalantzak argitzeko aukera ematen du eta horrela erantzun baliagarriak lortuko direla ziurtatu daiteke.

Beste alde batetik, elkarrizketa erabiltzearen abantailen artean honako hauek topa ditzakegu (Heinemann, 2003):

- Aplikazio espektro zabala, ikusgarriak ez diren gertaerak aztertzea posible da eta. Adibidez: esanahiak, arrazoiak, ikuspuntuak, iritziak, iradokizunak, balorazioak, zirrarak, eta abar.

- Ez da mugatzen leku-denborazko murrizketetara: igarotako gertaerei buruz galdetzea posible baita eta etorkizunerako planifikatutako egoerei buruz ere bai.
- Gaia zentratzeko aukera ematen du, hau da, helburu zehatz batera bideratzeko edo gai zehatz batean zentratzeko.
- Norbanakoaren eta hirugarren baten behaketa, norbanakoaren informazioak lortzeko aukera ematen baitu (iritziak, arrazoiak, jarrerarekiko motibazioa, eta abar) baita beste pertsoneri buruz edo gertaera baten aurrean oharrak egiteko aukera ere ematen du.

Elkarrizketa erdi egituratuak malgutasun handikoak dira, hasieratik proposatutako galderak erabiltzen direlako eta elkarrizketatuen arabera moldatu daitezkeelako. Hasieratik galderak prestatzen dira elkarrizketatik lortu nahi dena argi uzteko. Egiten diren galderak irekiak dira, ikertzaileak berriemaileak ematen dituen erantzunak elkarrizketan zehar beste batzuekin erlazioa ditzake eta galdera berriak sortu. Elkarrizketa mota honek duen abantaila da subjektuei egokitu dakiekeela, ulertzen ez den zerbait azaltzeko eta formaltasun maila murrizteko.

Edukiaren analisisa egiterakoan kategoria sistema bat identifikatu da eta horren arabera antolatuko dira emaitzak.

5.2. Parte hartzaileak

Ikerketa Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen ikastola batean burutu da. Ikerketa zentroa Assa Ikastola da, Lapuebla de Labarka izeneko herrian kokatuta. Arabar Errioxako eskualdean dago, lurralde historikoko hegoaldeko muga. Biztanleriaz hitz egiten badugu, XX. mendean zehar Lapueblako biztanle kopurua nahiko konstante mantendu egin dela esan behar da. Arabar Errioxa osoa kontuan hartuta Lapuebla de Labarka populazio dentsitate handiena duena da, oso herri txikia baita.

Ikastolari dagokionez, 1978. urtean sortutako Kooperatiba da. Gaur egun bere funtzionamendua Kooperatibaren Estatuaren arabera araututa dago. Ikastola Arabako Ikastolen Federazioko kidea da. Aldi berean, AIF, Ikastolen Elkarteko partaide eta Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen barruan dago. Ikastetxea D eredukoa da eta ahalegin handia egiten da euskara Arabar Errioxan zabaltzeko.

Ikastolaren nahia, orain dela urte asko, Arabar Errioxa euskalduntzea da. Horretarako esfortzu handia egiten dute pertsona euskaldunak hezteko, ez soilik euskara hizkuntza moduan erabiltzen dakitenak, baizik eta euskal kultura ere bereganatzea eta maitatzea helburua delarik.

Ikastetxe honetako zuzendariak, bost urteko gelako irakasle tutoreak eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasketa buruak parte hartu dute. Ikerketa emaitzak errazteko subjektu bakoitzari kode bat egokitu zaio (1. taula).

1. Taula. Parte-hartzaileen datuak eta kodifikazioa

Parte hartzaileak	Datuak	Kodifikazioa
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikasketa Burua	Noizbehinka formakuntza jasotzen du eta hitzaldi formatiboetara joaten da.	I.B
Bost urteko irakasle tutorea	Izandako ikasleetatik batek jasan du egoera hau.	I.
Ikastolako Zuzendaria	Noizbehinka formakuntza jasotzen du eta hitzaldi formatiboetara joaten da.	I.Z

5.3. Prozedura

Lana errebisio teoriko bat eginez hasi zen, hortik abiatuta helburuak planteatu ziren eta ondoren helburu horiek lortzeko zer egin behar zen pentsatu zen. Behin elkarrizketa tresna erabiliko zela aukeratu zenean, elkarrizketarako gidoi bat prestatu zen, beti ere zuzendariarekin adostutakoa. Elkarrizketa prest egonda, elkarrizketarako subjektuak baita ikerketa zentroa ere pentsatu ziren. Horretarako, Assa Ikastolarekin harremanetan jarri nintzen elkarrizketa egiteko. Ikastola hau erabili da hor nire ikasketak egin eta graduako azken praktikak burutu ditudalako. Hori dela, eta ikastolarekiko gertutasuna erabili da haiengana hurbiltzeko. Lehenik eta behin, elkarrizketa egiteko baimena eskatu zen eta oniritzia jasota, elkarrizketaren gidodia bidali zen beraiek elkarrizketan galdetuko zenaren berri izateko eta alde zuzenetik gaiari buruzko hausnarketa pertsonala egin izateko. Behin hori lortuta, elkarrizketa egin zen eta horren transkribapena (2. *eranskina*) egin ondoren, galderen arabera edukien azterketa egin da, eta hortik gaien kategoriak egin dira.

6. EMAITZAK

Emaitzen atal honetan bi azpi-atal bereiziko dira: lehendabizikoa, egoeraren analisia, non aipatutako eragileei egindako elkarrizketetan suertatu diren edukien analisia egiten den; bigarrena, proposamen pedagogikoa, analitiko eta marko teorikotik abiatuta.

6.1. Egoeraren analisia

Gurasoen banaketa eta dibortzio egoeren aurrean, hezkuntza arloan erabakigarriak diren eragile ezberdinei (Ikastetxeko zuzendariari, ikasketa buruari eta bost urteko irakasle tutoreari) egindako elkarrizketa erdi-egituratuetao edukien azterketa burutu ondoren, ondorengoak dira eratu diren kategoriak:

- a) Egoerari ematen zaion erantzuna
- b) Familiekiko komunikazioa
- d) Ikastolak eskainitako formazioa
- e) Gaiaren lanketa irakasle eta ikasleen artean.

Hauetako bakoitzaren inguruan ekarpen esanguratsuenak jasotzen dira ondoren.

a) *Egoerari ematen zaion erantzuna*

Orokorrean dibortzio egoera baten aurrean ikastolan jarraitzen den prozedurari erreferentzia egiten zaio bi elkarrizketetan, hona hemen horren adibidea:

I.B_2019/04/15: berez idatzia protokolo ofizialik ez dugu Ikastolan, ikastolaren izenean. Baina bai holako arazo edo egoeraren aurrean bai jotzen dugula Eusko Jaurlaritzako dekretuan agertzen den protokolo horretara. (...) Normalean ez da egon arazo nabarmenik honen inguruan, ikasle bat horrelako egoera baten aurrean ikusten denean familiak nahiko ondo kudeatu izan du eta guk epaitegiak edo dekretuak esaten duen moduan kudeatu dugu.

Nahiz eta ikasketa buruak adierazi duen moduan protokolo ofizialik idatzita ez egon, irakasleek badakite nola jokatu behar duten. Hona hemen horren adibidea:

I_2019/04/15: (...) Tutoretza taldeetan biltzen gara eta zentroko pedagogoarekin hitz egiten dugu informazio hori kudeatzeko. Haurra behatu eta behar izatekotan plan berezia jarriko dugu.

Ikastolak protokolorik ez izan arren ez da modu isolatuan egiten den zerbait. Egoera suertatzen bada tutoretza taldeetan lantzen den gaia da.

b) Familiekiko komunikazioa

Ikastolak familiekin harremana egiteko erabiltzen duen ohiko bidea izaten da dibortzio egoera baten aurrean erabiltzen den berdina, ez dago aparteko biderik egoera honetaz aritzeko. Dibortzio egoera bat jasaten ari den familia irakasle tutorearekin harremanetan jarri ohi da horren berri emateko:

I_2019/04/15: beti ere guraso bileretan azpimarratzen dugu oso garrantzitsua dela familian edo egunerokotasunean edozer gauza gertatuz gero oso komenigarria dela tutore erreferenteari komunikatzea. Lehenik eta behin, familiak dibortzioaren berri ematera itxoiten dugu.

I.Z_2019/04/15: familiek ematen digute egoeraren berri banatu behar direnean. Lehenengo tutorearekin harremanetan jartzen dira eta egoeraren berri ematen diote eta gero informazio hori guregana heltzen da.

Banaketa egoera bizi duten familiekin, hurrei buruz hitz egiteko orduan, familiak aukeratu duen harreman mota errespetatu da ikastolan. Hori dela eta, jokatzeko hainbat era daude, gurasoen arteko harremanaren arabera.

I.B_2019/04/15: guk ez dugu inoiz arazorik izan familiako bi kideei informazioa aldi berean edo banatuta emateko. Guri nahiz eta gero agian kustodia batek izan edo besteak, guk ez dugu inoiz arazorik izan eta beraiek eskatzen diguten moduan egiten ditugu gauzak.

I_2019/04/15: gurasoek duten erlazioaren arabera modu batean edo bestean erantzuna emango diegu (banakako bilerak...).

d) Ikastolak eskainitako prestakuntza

Ikastolan, lehenengo kategorian azaltzen den bezala, Eusko Jaurlaritzako Dekretuan agertzen den protokolora jotzen dute egoera honen aurrean daudenean. Protokolo horri jarraitzeaz gain, ikastola Erkide kooperatiben irakaskuntza federazioko kidea da eta, beraz, hortik ere egoera honen aurrean eman beharreko erantzunen gaineko aholkularitza jasotzen dute:

I.B_2019/04/15: zer nolako baliabidea edo idatziak edo ziurtagiriak behar dituen ikastolak matrikulak egiteko edo gauzak okertzen direnean beti izan dugu Erkide, ikastola badago kooperatiben irakaskuntza horretan eta hor badaukagu zerbitzu bat edozein aholku behar badugu edo informazio baten beharra baldin badugu hori beraiek ematen digute, edozein arazoren aurrean haien aholkularitza ematen digute.

Horretaz gain, ikastolan jasotzen den formazioari dagokionez, elkarrizketetan kontraesanak jaso dira:

I.B_2019/04/15: ikastaroak bai, jasotzen ditugu. Irakasleek ere parte hartu dezakete baina horrelako gaietan ezer berezirik ez badago momentu horretan, normalean zuzendaritza eta administrazioak parte hartzen du horrelako ikastaro/hitzaldietan.

I.Z_2019/04/15: ez egia esan, ez ditugu ikastaroak egiten. Nola tratatu behar diren haurrak edo... Ez. Horretan orientazio zerbitzuak parte hartzen du.

Kontraesan hauen zergatia karguan egondako urteen esperientziatik etor daiteke edo karguan egon bitartean egoera honen adibideak ikastolan eman edo ez ematearen arabera. Orokorrean administrazioak eta zuzendaritza taldeak parte hartzen dute. Irakasleek bestelako gaiak jorratzeko ikastaroetan parte hartu ohi dute: curriculum, edukiak, metodologia; hauen kasuan dibortzioaren gaia lantzeko ikastaroetara joatea ez da oso ohikoa.

e) Gaiaren lanketa irakasle eta ikasleen artean

Ikastolan dibortzioa ez da ohiko gai bat bezala jorratzen. Ez da tutoretza orduetan modu programatuan lantzen den horietako bat: lankidetzak, errespetua, bullying-a...; hala ere, haur bat dibortzio egoera pairatzen ari bada eta irakasleari kezkarria iruditzen bazaio, orduan zuzendaritza taldean lagunduko dute ondoren gelara eraman ahal izateko:

I.Z_2019/04/15: hilabetean behin elkartzen gara zuzendaritza taldea eta bilera horretan nolabait esanda "pitatzen" diren gaiak ateratzen dira. Saiatzen gara erantzun bat ematen eta pertsona horri laguntza ematen.

I.B_2019/04/15: ez badago kasu zehatz bat ez da aipatzen. Egia da ez dagoela jasota ohiko moduan, baina honekin zerikusia duen zerbait dagoenean irakaslearekin hitz egin eta berarekin batera nola jokatu adosten dugu.

Ikastolan eta irakasleen artean gai hau oso ohikoa ez denez, ikasgeletara normalean eramaten ez den gai bat da, familia eredu-anitzen lanketa izan ezik; dibortzio-egoera horretan dagoen haur bat dagoenean baino ez da ikasgelan lantzen; irakasleek dituzten kezken artean honek ez du lehentasunik.

I.B_2019/04/15: tutoretza saioetan lantzen da familia ereduak daudela gaur egun eta denak errespetagarriak direla.

I.Z_2019/04/15: haurrekin zuzenean ez da lantzen, egoera hori jasaten duen haurrarekin zuzenean landu daiteke. Baino gelan denekin landu landu gai hau ez dut uste lantzen denik. Batzuetan tutoretzetan lantzen dira gai batzuk, ikasgelan arazoa duten haur batzuk daudelako orduan bai lantzen da.

Egoera hau jasaten duen haur bat baldin badago, haur horrekin zuzenean landuko da gaia eta egoera aztertuko da, baina, ez da ikasgelan beste ikasleekin bere egoera azalduko:

I.Z_2019/04/15: arazorik suertatzen bada orduan gaia lantzen da jakina. Norbait oso gaizki baldin badago, pertsona horrekin zuzenean landuko da eta batzuetan orientazio departamentutik tutoreari lan hori egiteko argibideak eman zaizkio.

Laburbilduz, esan daiteke ikastola honetan dibortzioaren aurrean izan behar duten jokabideari buruzko ikuspegi desberdina dutela zuzendaritza taldekideek eta irakasleek. Dena dela, ikus daiteke dibortzio kasuak agertu aurretik ez dela neurririk hartzen, baina kasuak agertzean guztiek dakite kasuari arreta eskaini behar zaiola eta erantzun bat eman behar zaiola, kasuak horrela eskatzen badu behintzat. Hortaz, egiten den esku hartzea familia eta umearen beharretara egokitzen da.

6.2. Proposamen pedagogikoak

Elkarrizketatik ateratako emaitzak behin aztertuta, ikastetxe konkretu baten egoera ezagutzeko aukera izan da; haratago joanda, eta egindako errebisio teorikoarekin, hauek dira proposatzen diren gomendioak. Atal honetan egiten dena ez da ikastetxe konkretu honetan ematen den erantzunaren aurreko gomendioa, baizik eta edozeinen esku uzteko egiten den aholkua.

Lehenik eta behin eta ikastola egoera honen aurrean prest egon dadin, protokolo bat garatzea eta adostutakoa guztiek ezagutzea izango litzateke aukerarik onena. Ikastolak erantzun sistematizatua izan behar du eta horretarako ezinbestekoa da ikastolak eman beharreko urratsak eskola komunitateko kide guztiek ondo ezagutzea.

Ikastolak protokoloa idazteko ez du hutsetik abiatu behar. Izan ere, gaur egun badira hainbat dokumentu edo material erabilgarri izango litzuzkeenak. Protokoloa idaztea bezain garrantzitsua izango litzateke profesionalen artean zabaltzea.

Dowling eta Gill Dorrellek (2008) adierazi zuten moduan, irakasleek ere inoiz zalantza izaten dute ez baitakite zein rol hartu dibortzio prozesuan murgilduta dauden gurasoen aurrean. Irakasle guztiek gurasoekin bileretan sortzen den intentsitate emozionalari aurre egiteko ez dute euren burua prest ikusten.

Protokoloan honako hauek landu beharko lirateke:

- Familiaren ezaugarriak ezagutzea (kurtso hasierako elkarrizketetan ezagutu daiteke).
- Haurraren familiaren egoeraren berri izatea.
- Gurasoekiko zein haurrekiko harremana zuzena eta konfiantzazkoa eraikitzea.
- Erabakiak nola hartu.
 - Guraso bilerak egiteko.
 - Ebaluazio txostena emateko orduan nori eman.
 - Haurrari buruzko informazioa helaraztean.
- Sarrera-irteera kontrola.
 - Gurasoen bisita erregimena ezagutzea.
 - Aldaketen berri izatea.

Bigarrenik ikastolako langileek egoera honi erantzun on bat emateko gaiaren inguruan prestakuntza izan beharko lukete. Profesional guztiek prestakuntza bera eduki behar dute modu berean jokatu ahal izateko, dibortzioaren aurrean haurrengan agertzen diren portaera batzuk interpretatzen jakiteko. Irakaslearen gaitasunak beharrezkoak izango dira dibortzio egoerara egokitzeko balizko zailtasunekin lotutako jarrerak detektatzeko eta aldi berean era egokian gurasoekin harremanetan egoteko. Prestakuntzan honako hauek landu ahalko lirateke:

- Familia aniztasuna.
- Legea: patria potestatea, kustodiak, bisiten erregimena...
- Guraoen jarreraren ezaugarriak eta faseak.
- Haurren jarreraren ezaugarriak eta faseak.
- Irakaslearen gaitasunak hobetu eta familiaren aurreko posizionamendua finkatu.

Azkenik, marko teorikoan ikusi den bezala, dibortzio egoerak haurrengan duen eragina nabarmena da eta dibortzio egoeraren aurrean izan ditzaketen erreakzioak anitzak dira. Horretarako eta ikastolan hurrekin gaia asko lantzen ez denez, jarraian, ikasgelan egoera hau jasaten ari den haur bat izanez gero, umeei lanketa modu zuzenean egiteko hainbat baliabide proposatzen dira (2. Taula).

2. taula. HHko umeein dibortzioaren gaia lantzeko baliabideak

Erreferentzia	Gaia
Meabe, M. eta Mitxelena, J. (2003). <i>Vivo en dos casas...¿y qué?</i> . Bilbo: Asociados.	Banaketaren ondoren bi etxetan bizitzearen abantailak azaltzen ditu.
Baumbach, M. (2006). <i>Los fines de semana veo a papá</i> . Barcelona: Juventud	Gurasoen banaketaren prozesua haurraren ikuspuntutik azaltzen du
Francotte,P. (2008). <i>!Vaya lío de familia!</i> Barcelona: La galera	Haur baten istorioa kontatzen du bere gurasoen banaketaren ondoren.
Pomés, J. (2004). <i>Simón: días sin cole</i> . Barcelona: Tusquets.	Gaia naturaltasun osoz eta modu argi batean azaltzen.
Moore-Mallinos, J. (2004). <i>Cuando mis padres se olvidaron de ser amigos</i> . Barcelona: Gemser.	Dibortzioaren inguruan hurrek dituzten kezkak azaltzen dira
Cole, B. (1997). <i>Todo doble o cómo divorciarse con buen humor</i> . Barcelona: Destino.	Dibortzioa arazoetatik irteteko alternatiba bezala azaltzen du.

7. ONDORIOAK

Lan honen helburu nagusia eskolak haur baten gurasoak banatzen direnean zer nolako erantzuna ematen duen aztertzea eta horren gainean hausnarketa egitea da. Horretarako, gaiari buruzko teoria bildu da eta ondoren eskola bateko langile batzuk elkarrizketatuak izan dira eta haiek emandako erantzunetan oinarrituta ondorio batzuk atera dira, beti ere, teoriarekin alderatuz.

Familia ereduen aniztasuna eta aldaketen abiadura kontuan harturik, eskolaren erantzuteko premia begi bistan dago. Ezagutza eta eztabaida, onarpena eta errespetua lortzeko aurrerapausoak dira. Eskola inklusiboak ingurumen aldagai ugari hartu behar ditu kontuan, antolaketan eta metodologian aldaketak egin baino lehen. Beraz, ez dago eskola inklusiborik familia aniztasunik gabe. Eta familia aniztasunaren gaia garatzeko Eskolako Hezkuntza Proiektuaren partaide guztiek onartuak eta aktiboak sentitu behar dute (Aguado, 2010).

Hori horrela eta emaitzetan ikastolan gaiaren inguruko protokolo zehatzik ez dagoela ikusita, ondorioztatu daiteke dibortzioa ikastolako gaien artean ez dagoela eta, beraz, egoera hau gertatzen denean baino ez dutela horren inguruan ezer lantzen. Ez dute ikusten beste modu batean egiteko beharra, nahiz eta hainbat egilek defendatzen duten bezala ikastetxea eta irakasleak lehendik prest egon behar duten eta Eusko Jaurlaritzak protokolo baten zehaztapena gomendatzen duen (Eusko Jaurlaritza, 2011). Irakaslearen gaitasunak beharrezkoak dira dibortzio egoerara egokitzeko balizko zailtasunekin lotutako jarrerak detektatzeko eta aldi berean era egokian gurasoekin harremanetan egoteko (Musitu, 2004).

Gaur egun, dibortzio kopurua gora doa nabarmen, izan ere, harremanak gatazkatsuak direnean irtenbiderik ohikoena dibortzioa dela ikusten da eta honek haurren bizimoduan aldaketak ekartzen ditu. Aldaketa hauen aurrean haur guztiek ez dute berdin jokatzeko eta horrek haien garapenean eragina izan dezake (Manzano eta Martin, 2007).

Kontuan hartuta garapen horretan eskolak zein familiak zeresana duela, bi eremu hauen arteko elkar ezagutza, lankidetzeta eta konplizitateak ezinbestekoak dira (Aguado, 2010). Gauzak horrela, dibortzio egoera bat ematen denean ikastolak gurasoekin harreman jarria du haurren inguruko informazioa izateko, bileretara deitzeko, edo gurasoek hartutako erabakiak errespetatzeko. Hortaz, ondorioztatu daiteke, esku hartze zehatzik ez izan arren, horrelako egoera baten aurrean aurkitzen direnean irtenbideak bilatzen dituztela.

Hezkuntza arloko profesionalek ikasleengan izaten diren aldaketa horien kontzientzia hartzen ikas dezakete eta, era horretan, laguntza eskain diezaieke haurrei. Gainera, haur bat familian dibortzio egoera bat bizitzen ari dela aldez aurretik jakinez gero, hurbil-hurbiletik ikusi ahal izango ditu haurren agertzen diren aldaketak (Martínez-Pampliega et al., 2014). Ikastetxean orientazioak jasotzeko laguntza jaso dezakete zuzendariaren esanetan baina, bestalde, irakaslegoaren prestakuntza espezifikoa eza identifikatu da elkarrizketetan esandakoaren arabera. Honen aurrean, gomendagarria da irakasleen eskura materiala, dokumentazioa eta gaiaren inguruko informazioa jartzea eta, horregatik lan honetan proposamen zehatzak luzatu izan dira.

Azkenik eta amaitze aldera, hasiera batean proposatu zen helburu orokorra baita proposatu ziren espezifikoa lortu direla esan beharra dago. Ikerketan zehar eskolak haur baten gurasoak banatzen direnean zer nolako erantzuna ematen aztertu da, hori baitzen hasieratik jarritako helburu orokorra. Proposatutako galderei eta elkarrizketari ezker, eskola zehatz bateko langileek dibortzioaren inguruan duten prestakuntza zein den ezagutu da; dibortzio egoeren aurrean esku hartzea egiteko erabiltzen dituzten tresnak aztertu izan dira; eta, ikasgeletan gaiari ematen zaion lanketa identifikatzeko aukera egon da. Beraz, hasieratik jarritako helburu espezifikoa ere lortu dira.

8. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Behin lana amaituta eta errebisioa egin ondoren, hainbat gabezia aurkitu dira baita etorkizunari begira aldatuko liratekeen hainbat atal identifikatu ere. Gabeziei erreparatuz, honakoak aipatuko nituzke.

Hasteko, lana gauzatzeko orduan zuzendari aldaketa ugariak zaildu dute lanaren norabidearen definizioa garaiz egin ahal izatea eta, ondorioz, prozesua atzeratu egin da hasierako plangintzarekin alderatuta. Hori dela eta, hasiera batean finkatutako helburu batzuk ezin izan dira bete.

Baldintzapen honek lan honen hurrengo gabezia nagusiak azaltzen ditu, ikerketaren atal enpirikoan topatu daitezkeenak: tresnen artean elkarrizketa bakarrik erabili da eta parte-hartzaile kopurua murrizta izan da. Hortaz, lan honen ondorioak ezin dira baieztapen kategorialtzat hartu, baizik eta ikastetxe konkretu baten zuzendaritza taldearen eta irakaslearen ordezkariek direnen ikuspegitik egindako balorazioak bezala.

Etorkizunari begira lan honetan aldatuko nituzkeen atalak ondorengoak dira:

Lehenik, ikastolako subjektu gehiagori elkarrizketa egitea. Haurrarekin eta zehatzago haur hezkuntzako haurrekin egunero harremanetan dauden pertsonak elkarrizketatzea. Hiru-sei urte bitarteko irakasle tutoreak, zuzendaria, ikasketa burua eta ikastolako orientatzailea, hain zuzen ere. Eta ez nituzke alde batera utziko eskolako bestelako profesionalak: zaintzaileak, jantokiko langileak, eta abar. Horrela emaitzak eta ondorioak ateratzeko zailtasun gutxiago egongo lirateke eta elkarrizketatu gehiago izanda konparaketak egiteko aukera egongo litzateke.

Bigarrenik, ikastetxe bereko hainbat guraso elkarrizketatzea. Egoera bizi izan duten gurasoak baita dibortzio gaiarekin erlaziorik ez dutenak ere. Ikastola erakundetik, gurasoei ematen zaien informazioaren berri izateko eta gaiaren garrantzia ikusteko. Hau eginda, ikastolako langileen baita gurasoen ikuspuntua alderatu ahal izango litzateke.

Hirugarrenik, ikastetxe ezberdinei elkarrizketak egitea eta horrela aurrera eramaten duten esku hartzea konparatzeko aukera izango genuke. Ikastetxe guztietan subjektu berdinei egingo litzateke elkarrizketa, emaitzak zehatzagoak izateko. Hau egingo balitz emaitzen atala ez litzateke hain motz geratuko.

Azkenik, ikerketa egiteko praktiketako ikasgela erabili eta egoera hau jasaten duten haur zein gurasoak badaude haiekin ikerketa aurrera eramatea aukera paregabea izango litzateke. Haurrek izaten dituzten jarrera aldaketak eta erreakzioak behatu ahal izango lirateke eta gurasoekin egoeraren eta ikastolaren esku hartzearen inguruan elkarrizketatzeko aukera izatea aukerarik hoberena izango litzateke. Hasieran aipatu bezala, epeekin ondo ibiltzea zaila izan da eta praktikak bukatutakoan lanari ekin zaio.

9. BIBLIOGRAFIA

16216 Legea 30/1981. Por la que se modifica la regulación del matrimonio en el Código Civil y se determina el procedimiento a seguir en las causas de nulidad, separación y divorcio, BOE, Madril, Espainia, 1981eko uztailaren 7an.

Alberdi, I (1999). *La nueva familia española*. Madrid: Taurus.

Allison, P. D., Furstenberg. F. F. (1989). How marital dissolution affects children: variations by age and sex. *Developmental Psychology*, 25, 540-549.

Aguado, Lucia (2010). *Familia ereduak gaurko eskolan*. *Tantak*, 22(1), 127-148 orri.

Bernal, T. (1998). *La mediación: una solución a los conflictos de ruptura de pareja*. Madrid: Colex.

Campo, S. y Rodríguez-Brioso, M. M. (2002). La gran transformación de la familia española durante la segunda mitad del siglo XX. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 100, 103-165.

Cantón, J. y Justicia, M. D. (2002). *Características del niño y adaptación al divorcio de los padres*. En Cantón, F., Cortés, M. R. y Justicia, M. D. (2007), conflictos matrimoniales divorcio y desarrollo de los hijos (pp.137-160). Madrid: Pirámide.

Castells, P. (2004). *Separémonos bien*. Madrid: Espasa.

Clerget, S. (2006). *Separémonos, pero protejamos a nuestros hijos*. Barcelona: De Vecchi.

Dowling, y Dorell Gill (2008). *Cómo ayudar a la familia durante la separación y el divorcio*. Madrid: Morata.

Emery, R. E. (2006a). *The truth about children and divorce. Dealing with the emotions so you and your children can thrive*. USA: Plume.

Eusko Jaurlaritza (2011). Instrucciones de la dirección de centros escolares del departamento de educación universidades e investigación de la CAPV sobre solicitud de información y de cambio de centro escolar en el caso de padres /madres separados o divorciados o parejas de hecho que hayan finalizado su convivencia.

Familia Politikarako Institutua (2014). *Evolución de la familia en España 2014*. Berreskuratua 2019ko urtarrilaren 9an hemen: <http://www.ipfe.org/Espa%C3%B1a> Documento/72.

Heinemann, K. (2003). *Introducción a la metodología de la investigación empírica en las ciencias del deporte*. Barcelona: Paidotribo.

- Hetherington, E. M. (1989): "Coping with family transitions: winners, losers & survivors". *Child Development*, 60, 1-14.
- Martínez-Pampliega, A., Iriarte, L. eta Sanz, M. (2014). *Egokitzen. Programa de intervención post-divorcio*. Deustuko Unibertsitatea.
- Mazur E. Wolckik S.A. y Sandler I.N. (1992). Negative cognitive errors and positive illusions for negative divorce events: predictors of children's psychological adjustment. *Journal of Abnormal Child Psychology*, 20, 6, 523-542
- Merino, L., Corral, S., Cormenzana, S., Sanz, M., & Martínez-Pampliega, A. (2016). *EGOKITZEN-infantil: Programa de intervención post-divorcio psicoeducativa con hijos/as de 8 a 12 años*. ISBN: 978-84-608-905-7.
- Morgado, B. (2003). El divorcio desde una mirada de los niños. Una revisión teórica. *Revista de ciencias y orientación familiar*, 26, 49-62.
- Musitu (2004). *Introducción a la psicología comunitaria*. Barcelona: UOC.
- Pederson, D. - Gilby, R. (1986): «*Children's concepts of the family*», en R. D. Ashmore - D. M. Brodzinski (eds.): *Thinking about the family* (pp. 181-203): New Jersey: Lawrence Erlbaum Ass.
- Piaget, J. (1967): *Le jugement et le raisonnement chez l'enfant*. Paris: Delachaux et Niestlé.
- Scanzoni, J. (2004). Household diversity: The starting point for healthy families in the new century. En M. Coleman & L. H. Ganong (Eds.), *Handbook of contemporary families. Considering the past, contemplating the future* (pp. 3-22). Thousand Oaks: Sage Publications
- Triana, B. - Simón, I. (1994): *La familia vista por los hijos*, en M. J. Rodrigo (ed.): *Contexto y desarrollo social* (pp. 271-303). Madrid: Síntesis.
- Wallerstein, J., Lewis, J. eta Rosenthal, S.P. (2013). Mothers and their children after divorce: Report from a 25-year longitudinal study. *Psychoanalytic Psychology*, 30, 2, 167-187.
- Wellerstein, J. (2006): "Y los niños... ¿qué?". Barcelona: Editorial Granica.
- Zill, N., Morrison, D.R. y Coiro, M.J. (1993). Long-term effects of parental divorce on parent-child relationships, adjustment and achievement in young adulthood. *Journal of Family Psychology*, 7, 91-103
- Web gune honetatik berreskuratua: <https://www.ttiklik.com/eu/blog/2012/11/28/6-11-urte-banaketa-eta-dibortzioari-aurre-egiten-haurren-ongizatea/>

10. ERANSKINAK

I. Eranskina: Irakasleei egindako elkarrizketa erdi-egituratuaren gidoia

1. Eskolako planen edo protokoloen artean badago dibortzioa lantzeko pautarik ezarrita?
2. Zer nolako erantzuna duzue egoera honen aurrean?
3. Gaur egun eskolaren egoerari buruz ze datu dituzuen jakin nahiko nuke.
 - 3.1. Familian gertatzen diren aldaketen berri duzue?
 - 3.2. Noiz lortzen duzue informazio hori? Hasieratik gurasoek adierazten dute edo haurretan ikusten duzue?
4. Ikastolan dauden haurren artean zenbatek jasan dute egoera hau?
5. Dibortzio egoera baten aurrean erabili ahal diren tresnak ezagutzen dituzue?
6. Noizbait dibortzioaren inguruan ikastaro bat egin duzue?
7. Irakasleen artean gai honen inguruan lanketarik egiten da?
8. Ikasgelan hurrekin lantzen duzue?

II. Eranskina: Egindako elkarrizketen transkribapena

- Ikasketa burua:

1. **Eskolako planen edo protokoloen artean badago dibortzioa lantzeko pautarik ezarrita?**

Berez idatzia protokolo ofizialik ez dugu Ikastolan, ikastolaren izenean. Baina bai holako arazo edo egoeren aurrean bai jotzen dugula Eusko Jaurlaritzako Dekretuan agertzen den protokolo horretara jotzen dugu beti.
2. **Zer nolako erantzuna duzue egoera honen aurrean?**

Guk ez dugu izan horrelako arazo nabarmenik honen inguruan, beti edo matrikula berria ematen denean edo berez matrikulatuta dagoen ikasle bat horrelako egoera baten aurrean ikusten denean familia nahiko ondo kudeatu izan dugu beti ere, epaitegiak edo dekretuak esaten duen moduan. Eta familien aldetik ez dugu inoiz inongo arazorik izan. Edozein paper ofizial eskatu behar izan dugunean beraiek ere ekartzeko, nire ustez, horrelako egoeretan beraiek ere nahiko aholkatuta daude eta modu egokian jokatu izan dute. Beste egoera batzuetan agian larriagoak edo bide okerra hartzen dutela ikusten duzunean guk beti ofizialtasunera eta legearen barruan mugitu izan gara. Horrelakoetan ere beraiek erantzuna eman behar dute.
3. **Gaur egun eskolaren egoerari buruz ze datu dituzuen jakin nahiko nuke.**
 - a. **Familian gertatzen diren aldaketen berri duzue?**

Normalean bai, geratzen denean familia baten familia barruan erabaki denean aldatu egingo dela eguneroko egoera normalean bai, familiak tutorearekin edo irakasle erreferenteari esan zaie. Behin betiko erabakia hartuta dagoenean eta orduan martxan jartzen ditugu beste bide guztiak. Guk ez dugu inoiz arazorik izan familiako bi kideei informazioa aldi berean edo banatuta emateko. Guri nahiz eta gero agian kustodia batek izan edo

besteak, guk ez dugu inoiz arazorik izan eta beraiek eskatzen diguten moduan egiten ditugu gauzak.

b. Noiz lortzen duzue informazio hori? Hasieratik gurasoek adierazten dute edo haurretan ikusten duzue?

4. Ikastolan dauden haurren artean zenbatek jasan dute egoera hau?

Ugariak dira eta gero eta gehiago ematen ari dira egoera hauek, nire ustez lehen baino normalizatuak daude, normalizat hartzen dira eta ematen denean aipatzen da, lantzen da, kudeatzen da, antolatzen da eta egin beharrekoak normaltasun handiz egiten dira. Batz bestekoa gero eta gehiago, egia esanda kopuru zehatz bat ematea zaila egiten zait, baina hamar familietatik hiru, izan daiteke ematen dela.

5. Dibortzio egoera baten aurrean erabili ahal diren tresnak ezagutzen dituzue?

Bai, Eusko Jaurlaritzako Dekretuan oso ondo jasotzen da. Zer nolako baliabideak edo idazkiak edo zihurtagiriak behar dituen ikastolak matrikula hori egiteko eta gero gauzak okertzen direnean beti izan dugu Erkide, ikastola badago horren barruan eta kooperatiben irakaskuntza horretan eta hor badaukagu zerbitzu bat edozein aholku behar badugu edo informazio baten beharra baldin badugu hori beraiek ematen dizkigute, edozein arazoren aurrean haiek aholkularitza ematen digute. Ez bakarrik arazoa gertatzen denean, adibidez, aurten honen inguruan hitzaldi bat izan dugu, gertatu daitezkeen egoerak eta egoera horiek nola kudeatu, badaude hitzaldi informatiboak.

6. Noizbait dibortzioaren inguruan ikastaro bat egin duzue?

Bai, jasotzen ditugu. Behar bada ez da oso ohikoa. Irakasleek ere parte hartu dezakete baina horrelako gaietan ez badago ezer berezia momentu horretan, normalean zuzendaritza eta administrazioak parte hartzen du horrelako hitzaldietan. Irakasleak apuntatu nahi izatea ez zaigu tokatu, berez ez daukatelako honen inguruan inolako arazorik. Normalean zuzendaritza eta idazkaritza bai, urtero joan izan gara horrelako hitzaldietara.

7. Irakasleen artean gai honen inguruan lanketarik egiten da?

Ez badago kasu konkretu bat ez da aipatzen. Egia da ez dagoela jasota ohiko zerbait moduan, bai honekin zerikusia duen zerbaitek "salto" egiten duenean irakasle horrekin hitz egiten dugu eta berarekin batera nola jokatu adosten dugu.

8. Ikasgelan hurrekin lantzen duzue?

Tutoretza saioetan bai lantzen da, familia ereduak daudela gaur egun eta denak onargarriak direla. Eta gero ere, horrelako kasu batek "salto" egiten duenean, ikaslea ez baduzu ikusten edo familiak eskatzen badu, orientatzaileak horretan lan egiten du, banan banako horretan laguntza ematen.

- Zuzendaria:

1. **Eskolako planen edo protokoloen artean badago dibortzioa lantzeko pautarik ezarrita?**

“Guk jarraitzen dugu Eusko Jaurlaritzak dakarren protokoloa nola jokatu beharko genukeen familia bat banatzen denean. Dena den, esaten dizut, berez arazorik ez badago ez dugula zentzu hertsian aplikatzen. Guk berez familia bat banatzen denean Alexian buletina bi aldetara bidaltzen dugu eta informazioa bi aldetara bidaltzen dugu, ez badago inolako arazorik edo patria potestatea batek baldin badu eta beste modu batean jokatzeko esaten badigu, epaileak esaten duen moduan egingo genuke, baina bestela horrela egiten dugu. Bilerak egin behar baditugu, biekin egiten ditugu inolako arazorik gabe.

2. **Zer nolako erantzuna duzue egoera honen aurrean?**

Normalean ez da egon arazorik, normalean ahoz esan beharko genuke bakarrik eta guk buletina bidaltzen dugu ere. Normalean komunikazioan beti gailentzen da bat eta patria potestate hori duen pertsonarekin izaten da harremana, baina ez daukanari informazioa ematen diogu.

3. **Gaur egun eskolaren egoerari buruz ze datu dituzuen jakin nahiko nuke.**

a. **Familian gertatzen diren aldaketan berri duzue?**

Bai, familiek ematen digute beraien egoeraren berri banatu behar direnean. Lehenengo tutorearekin harremanetan jartzen dira eta egoeraren berri ematen diote. Eta gero guregana heltzen da informazio hori.

b. **Noiz lortzen duzue informazio hori? Hasieratik gurasoek adierazten dute edo haurretan ikusten duzue?**

Gurasoek ematen digute informazio hori haien banaketa erabakita dagoenean.

4. **Ikastolan dauden haurren artean zenbatek jasan dute egoera hau?**

Ez dugu momentuz daturik atera. Ikastolan 400 ikasle ditugu eta banatuta dauden familiak nik esango nuke denborarekin igotzen ari den kopuru bat dela. Orain familiak gehiago banatzen direla lehen baino, agian nire pertzepzioa da. Ez daukagu daturik, ez dugu zehatz mehats informazio hori bildu. Ni lanean hasi nintzenean baino gehiago daude, agian bai. Ez dakit zein den arrazoia, egia esan.

5. **Dibortzio egoera baten aurrean erabili ahal diren tresnak ezagutzen dituzue?**

Guk badaukagu protokoloa nola jokatu behar dugun guk adierazten duena. Batzuetan deitu izan gaituzte banaketa traumatiko batean zentro moduan parte hartu behar izan dugu. Zuzendariak deklaratu behar izan du epaiketaren batean, bai gertatu izan zaigu.

6. **Noizbait dibortzioaren inguruan ikastaro bat egin duzue?**

Ez, egian esan. Nola tratatu behar diren haurrak edo.. Ez. Horretan orientazio zerbitzuak parte hartzen du eta beraien egiten dituzte esku hartzeak ikusten denean haur batek jokabide ezberdinak dituen edo ondo ez dagoela nabaritzen zaionean. Banaketa baino lehen baita ondoren, horrek bere emaitza akademikoetan eragina izaten du, baita beste ikaskideekin harremanak egiterako orduan. Holakoetan orientazio departamenduak bideratzen ditu esku hartzeak.

7. **Irakasleen artean gai honen inguruan lanketarik egiten da?**

Hemen funtzionatzen dugu tutorizazio taldeen bitartez eta gauza hauek irakasleen artean komentatzen dira. Bai, gero sare bat daukagu antolatuta zuzendaritzara heldu ahal izateko. Tutorizazio taldeak hilabetean behin

elkartzen dira eta arazoak suertatzen badira zuzendaritza taldera heltzen dira. Hilabetean behin elkartzen gara eta bilera horretan nolabait esanda “pitatzen” duten gaiak ateratzen dira. Saiatzen gara erantzun bat ematen eta pertsonari laguntza ematen.

8. Ikasgelan hurrekin lantzen duzue?

Hurrekin zuzenean ez da lantzen, egoera hori jasaten duen haurrekin zuzenean landu daiteke. Baina gelan denekin landu landu gaia ez dut uste lantzen denik. Batzuetan tutoretzetan lantzen dira gai batzuk, ikasgelan arazoa duten haur batzuk daudelako orduan bai lantzen da. Normalean ez da egoten hitz egin behar diren gaien artean, arazorik suertatzen bada orduan gaia lantzen da, jakina. Norbait oso gaizki baldin badago, pertsona horrekin zuzenean landuko da, eta batzuetan orientazio departamentutik tutoreari lan hori lantzeko argibideak emango zaizkio.